

# B

BARREN

# 'Bohemioen kluba'

Taupadak estreinatuko du hilaren 19an

TOKIKOM



# EKIGAIN jaia

Sua, ura, natura ... eta gu,  
urteko egunik luzeena ospatzeko

**Ekainak 23, asteartea**

- ▶ 19:00 Maalako parkean elkartuko gara, handik Sallobentera joateko, oinez, kalejiran.
- ▶ 20:30 afari-merienda.
- ▶ 22:00 sua piztu, kantatu, dantzatu, salto egin ...
- ▶ 23:00 etxerako bidea, oinez, kalejiran.

Ume, gazte, heldu eta adineko.  
Elkarrekin eta jai-giroan  
egingo diogu ongietorria udari.

#### OHARRAK:

- Oinez joateko aukerarik ez duzenontzat, hitzordua 20:00etan izango da Sallobenten
- Afari-merienda bakoitzak berea eraman behar du; edariak (ardoa eta sagardoa) eta edalontziak Elgoibarko Izarrak jarriko ditu salgai.
- Frontala edo kopeta-argia eramatea komeni da, bueltako biderako.



ELGOIBARKO IZARRA  
Euzkaltzearen Topagunea



Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 744 112

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
Webgunea: [www.barren.eus](http://www.barren.eus)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik.

**KOORDINATZAILEAK** Ainhoa Andonegi  
**KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia  
**HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia  
**PUBLIZITATEA** Leire Rubio  
**MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz  
**ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika  
**ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro  
**KOLABORATZAILEA** Jairo Berbel, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larranaga, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi, Inma Mugertza, Ander Izagirre  
**INPRIMATEGIA** Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale  
**LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

## ARGITARATZAILEA:



## LAGUNTZAILEAK:



elgoibar  
biZi-biZiKal



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### Dagokionari

Nola da posible maiatzaren 10ean, idatzizko zenbait egunkaritan, *Noticias de Gipuzkoan* (loturarik ez dot aurkittu) eta *Diario Vascon* (<http://www.diariovasco.com/bajo-de-ba/201505/10/ayuntamiento-oferta-seis-nuevos-20150510005046-v.html>), eta bost egun beranduago, 2015eko maiatzaren 15ean argitaratutako BARRENEN 949. aleko 7. orrialdean agertu zen Lanbideren lan eskaintzaren berri Lanbide berak ez izatea ekainaren 10ean? Lanbiden dioelako ez dutela horren berri. Aupa zuek! Lotsagabeak!

**N.F., langabetua** ☞

### Eskerrik asko

*Gustatzen Jata, Jaku* lemapean ekainaren 7an Elgoibarren izandako Euskal Eskola Publikoaren jaia antolatzen ibili garen guztiok eskerrak eman nahi dizkizuegu bertara gerturatu eta parte hartu zenutenoi. Urte osoko lanaren emaitza bistaratu genuen, eta eguraldia lagun, aurreikusita bezala arazorik gabe joan zitzaigun eguna. Hori guztia ezinezkoa izango zen izendatu ezin ditugun hainbat eta hainbat boluntario egun osoz lanean aritu izan ez balira. Eskerrik asko guztioi. Eta nola ez, eskerrik asko, Elgoibarko Udalarri, Udaltzaingoari, txistulariei, dantzarietara eta beste hainbat erakunde eta pertsonari, eskuzabaltasunez erantzun zigutelako; bejondeizuela denoi.

Espereintzia bikaina eta ahaztezina izan da, eta talde-lanari esker, Herri Eskola eta Euskal Eskola Publikoa herritarrei iristea lortu dugu. Aurrerantzean ere hor izango gara zuengandik hurbil. Azken aldi hainbat aldiz entzun ditugun hitzekin agurtuko zaituztegu: *gustatzen jata, jaku*, eta zuei ere gustatuko jatzue. Mila esker, guztioi.

**Kalamua Guraso Elkarte eta Herri Eskolako langileak** ☞

### Eskerrik asko

Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den larunbatean, ekainaren 6an, ospatu zen Ikastolaren Eguna antolatzen lagundu zuten guztiei: babesleei, gurasoei, ikasleei eta baita irakasleei ere. Goizean goiz hasi zen eguna, eta parte hartzaile guztiek elkarlanean bideratutako ekimenari esker, giro ederrean igaro zen. Bestalde, azpimarratzekoa izan zen antolaketan fin-fin aritu ziren neska-mutilen lana. Eskerrik beroenak parte hartu zuten guztiei! Hauek izan dira gure laguntzai-

leak: Laboral Kutxa, Banco Santander, Evia, Euskal Kostaldeko Geoparkea, Bankoa, Astigarraga kirolak, Agurtzane ileapaindegia, Rosa liburu-denda, Idama ileapaindegia, Ferpi moda, Eroski bidaiak, Txariduna hotela, Karakate jatetxea, Sigma jatetxea, Alkorta bakailoak, Urkotronik, Mausitxa, Coviran, Doña Mercedes, Eizagirre okindegia, Bessa, Pelegrin, Bodegas LAN, Amaia fruta-denda, Ziarda harategia, Nava inprimategia, Beristain logistika, Iriondo kirolak, Kala lora-denda, Lurdes ileapaindegia, Noa estetika eta ileapaindegia, Surya belar-denda, Ecenarro, Pitxintxu, Xarlem kreazioak, Zu+Ni, Arriere de la Maison, Eroski supermerkatua, Sugar gozotegia, Sanlo EKT, CD Elgoibar, SD Eibar, Gotzon Garate Udal Liburutegia, Pilon, Lanbroa, Iriondo taberna, Kaia, Inazio Bereziartua musika eskola (txaranga txiki), Uxue Alberdi, Eñaut Elorrieta, Ion Gurrutxaga, Markel Bergara, Imanol Agirretxe, Unai Arrieta, Eli Pinedo, Ainhoa Lendinez, Alex Txikon, Karmen Arrillaga, Biraka dantza taldea, Niala magoa.

**Ikastolaren Eguneko Batzordea** ☞

### Gaztien eguna antolatzeko batzarra

Aurten ere ari dira hurbiltzen jaixak, eta aurten ere martxan da jai herrikoien aldeko apustua! Gaztien egunian ere, azken urtietan egin dugun moduan, gaztiok antolatutako egun baten alde egin nahi dogu Elgoibarko Gazte Asanbladan. Iazko arrakasta eta gero, ailegatu da ordua prestakuntzetan hasteko! Beraz, datorren domekan, ekainak 14, illuntzeko zazpiretan, gaztetxian bilduko gera. Biharrezkua da parte hartzeko asmua dauken kua-drilla edo taldietako ordezkari bana behintzat hurbiltzia, lanak danon artian banatzeko. Animatu! Uda usaiña hasi da!

**Elgoibarko Gazte Asanblada** ☞

### Eskerrik asko

Debemen elkarteak eskerrak eman nahii dizkie Trinitateetako azoka antolatzen lagundu zuten guztiei. Batez ere, hilabeteetan zehar antolakuntza bileretara etorri izan diren auzoetako alkateei, eta nola ez, Armueta harategiko Angeli eta bere familiarari. Baita ere egunean bertan dastaketa orduan laguntzera etorri ziren landa inguruneko auzoetako boluntario guztiei ere. Sagardoa banatzen egon ziren gazteak ere ez ditugu ahaztu nahi. Mila esker.

**Debemen** ☞

## Hemezortzi tabernak hartuko dute parte Elgoibarko Pintxo Lehiaketan, iaz baino hamalau gutxiagok

Ekainaren 16tik 19ra egongo da pintxoak dastatzeko aukera

**E**kainaren 16tik 19ra egongo da pintxo lehiaketa ostalari-tzan euskara sustatzeko helburuarekin. Iaz parte-hartze marka ezarri zuen lehiaketak, 32 partaiderekin, baina aurten hemezortzi izango dira parte hartuko duten tabernariak, eta horien artean ez dira egongo orain arteko sei edizio-etan epaimahaiaren saria irabazi duten hiru tabernak, hau da, Txarriduna, Gabi eta King-Kong.

Udalak antolatu du lehiaketa, eta arduradunek jakinarazitaakoaren arabera, bi berrikuntza izango ditu aurtengo edizioak. Batetik, Baserrikoa pintxoaren saria bertan behera laga dute, aurreko edizioetan "arrakasta gutxi" izan duela-eta. Bestetik, pintxoaren prezioa ezartzeko irizpidea aldatu dute. Orain arte euro bat eta hamar zentimoan saldu behar zituzten, baina aurten ostalari bakoitzak erabaki du pintxoaren salmen-ta prezioa. 1,10 euro eta 1,50 artean jarri dituzte prezioak.

### Sariak

Aurten ere bi sari banatuko dituzte: Epaimahaiaren Saria eta Herritarren Saria. Epaimahaiak pintxoaren itxura eta aurkezpena, zaporea eta testura, eta originaltasuna hartuko ditu



kontuan, eta herritarrek, aldiz, euren botoekin aukeratu dute pintxorik gustukoena.

Ekainaren 16an, 17an eta 18an (martitzena, eguaztena eta eguena), 19:00etatik 22:00etara egongo da pintxoak dastatzeko aukera, eta ekainaren 19an (barixakua) 12:00etatik 15:00etara eta 19:00etatik 22:00etara.

## Genero indarkeriaren eta sexu erasoaren biktima diren emakumeei arreta hobea emateko protokoloa sinatu dute hainbat eragilek



Genero Indarkeriaren eta Sexu Erasoaren Biktima diren Emakumeei Arreta Hobea Emateko Udal Jarduerarako eta Erakundearen Arteko Koordinaziorako Protokoloa sinatu dute herriko hainbat eragilek: Elgoibarko Udalak, Ertzaintzak,

Osakidetzak, Lanbidek, Elgoibarko Herri Eskolak, Elgoibar Ikastolak eta Elgoibar Arreiturre BHI institutuak. Protokoloa Udaltzat onartu zuen 2012ko azaroaren 29ko Osoko Bilkuran. Orditik, protokoloa osatzeko lanean jardun dute, eta

azken hilabeteetan erakunde gehiago batzeko lanean aritu dira. Protokolo honen helburua da arreta azkarra, koordinatua eta eraginkorra eskaintzea, eta herritarren artean, emakumeen aurkako indarkeria matxista onartuko ez duen kontzientzia landu nahi dute.

Bittori Zabala Elgoibarko Udaleko Berdintasun Saileko arduradunak adierazi duenez, luze jo du protokoloaren testua "findu" eta onartzeak, eta nabarmendu du, datuen babeserako legearekin bat datorren protokoloa osatzeak eman diela lanik handiena. Aurrera begira, Meka eta IMH lanbide eskolak protokolora batzeko lanean jarraituko dutela gaineratu du. Zabalaren esanetan "bizirik dagoen protokoloa" da, eta hobetzen jarraituko dute.



## Izena **Pedro Perez**



Pedro Perez mendararra izango da datozen lau urteetan Gipuzkoako Gurutze Gorriko presidentea. Anbulantzia medikalizatu bateko gidaria da ogibidez, baina horrez gain, boluntario dihardu Gurutze Gorrian. 1982an sartu zen Gurutze Gorrian, eta azken bederatzirteotan Eibar-Ermua sektoreko presidentea izan da. Gipuzkoako Gurutze Gorriak 600 bazkide eta 3.000 boluntario inguru ditu.

## Egitasmoa 'Oin Alai'

Atxutxiamaiakako hezitzaileekin, Kiribilekin eta Txutxi eta Maikarekin egin zuten umeei ikastetxeetarako bidea joan zen barixakuan, ikasturte amaierako *Oin Alai* berezian. 2010/2011 ikasturtean jarri zuen Udalak abian *Oin Alai*, 120 ume eta 35 boluntarioekin, baina kopuru horiek apalduz joan dira urtez urte, eta sustatzaileak kezkatuta daude ekimenaren etorkizunarekin. Hori dela eta, egitasmoan parte hartzera animatu nahi dituzte ume eta boluntarioak, eta horretarako, *Oin Alai*n parte hartzeak dituen onurak azaldu zituzten: autonomia lantzen laguntzen die umeei, erneago heltzen dira eskolara, sedentarismoa saihesten du, eta gutxiago kutsatzen da.



## Udal Gobernuaren osatzeko plenoak bihar egingo dituzte Elgoibarren eta Mendaron

Udal Gobernuaren osatzeko pleno bereziak egingo dituzte bihar Elgoibarren eta Mendaron, 12:00etatik aurrera. Ezusterik ezean, Ane Beitia EAJko alkategaiak hartuko du alkate kargua Elgoibarren, eta Sonia Garcia EH-Bilduko alkategaiak Mendaron.

## Elgoibarko eta Mendaroko 70 etxetara iritsi dira Errigoraren kontserbak

Nafarroa Hegoaldeko kontserba loteak erosteko kanpaina jarri zuen martxan Errigorak, eta aste honetan banatu dituzte produktuak. Elgoibarko Errigora taldeko kideek emandako datuen arabera, Elgoibarko eta Mendaroko 70 etxetara iritsi dira kontserba loteak. Kanpainaren helburua kontsumo arduratsua sustatzea eta produktuak ekoizlearengandik eroslearengana zuzenean helaraztea izan da, bitartekaririk gabe. Elgoibarko Errigora taldeko kideek eskerrak eman dizkiete kanpaina honetan parte hartu duten guztiei.

CLINICA DENTAL  
**ELIZPE**  
HORTZ KLINIKA

☎ 943 752 567

Elizburu, 3 behea SORALUZE

ORDUTEGIA:  
Astehelenetik ostiralera  
10:00-13:00 / 16:00-20:00  
e-mail: [elizpe3@gmail.com](mailto:elizpe3@gmail.com)



- ⊗ AURREKONTUAK ETA ERRADIOGRAFIA DIAGNOSTIKOAK DOAN
- ⊗ FINANTZATZEKO AUKERA
- ⊗ UNIVERSALUD ASEGUAREN BARNE.

- ⊗ ODONTOLOGIA OROKORRA
- ⊗ ORTODONTZIA
- ⊗ UMEEN TRATAMENDUA (P.A.D.I.)
- ⊗ ERREABILITAZIOAK INPLANTEKIN
- ⊗ ERREABILITAZIOAK ZERAMIKAREKIN



**Herriko Antzoki atzea zikinkeriaz beteta egoten da sarritan:** "Horrela aurkitu genuen Herriko Antzokiaren atzeko aldea orain dela pare bat aste. Badiurdi herritar batzuk dena libre dutela, eta horiek egiten dutenaren ondorioa beste guztiok jasan behar izaten dugu. Errespetu pixka bat eskatzen dugu".

**Herritar askok txakurrak solte eramaten dituzte:** "Udalak araudi bat atera zuen txakurrak lotuta eramateko, baina herritar askok ez dute betetzen eta txakurrak solte eramaten dituzte. Basarte auzoan, adibidez, oso ohikoa da txakurrak solte ikustea, eta txakurrei beldurra diegunok oso gaizki pasatzen dugu euren ondotik pasatzerakoan. Horrez gain, txakur jabe askok ez dituzte txakur kakak jasotzen. Udaltzainak gai honekin zorrotza goak izan beharko lirateke, eta isun gehiago jarri beharko lituzteke, jendeak araudia bete dezan".



**Txalo bero bat Euskal Eskola Publikoaren jaietan jardun zuten boluntarioei:** "Jende pila bat etorri zen domekan Euskal Eskola Publikoaren jairara, eta dena ondo baino hobeto antolatuta zegoen. Eskerrak eta txalo bero bat eman nahi diet domekan lanean jardun zuten boluntario guztiei".



**Eskerrik asko Urruzuno bailarako bide bazterrak garbitzea-gatik:** "Urteetan apur bat ahaztuta izan gaituzte, baina azkenaldian auzoa txukundu digute eta eskerrak eman nahi dugu. Bide bazterrak garbitu dituzte, eta ispilu berria jarri dute, errepidea hobeto ikusteko. Eskerrik asko".



Zuen kezak, galderek edo txaloak bidaltzeko:  
[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) 943 744 112

ELGOIBARKO  
VII. PINTXO  
LEHIAKETA

EKAINAK

16 17 18 19

**EGUNAK**  
**ORDUTEGIA**

**EKAINAK 16-17-18**  
asteartea, asteazkena eta osteguna  
19:00etatik 22:00etara

**EKAINAK 19, ostirala**  
12:00etatik 15:00etara  
19:00etatik 22:00etara

**SARIAK**

- "Pintxo onena"ren saria
- "Herritarren" saria

Pintxoa dastatu, baloratu eta  
**ZOKETAN** parte hartu !!

(bi laguntzako dastatzeko menua Belausteg jaleoan)



# ENPRESAN ERE EUSKARAZ

Elgoibarko Lanbide Heziketako ikastetxeek ahalegin handia egin dute urteetan ikasleek ikasketak euskaraz egin zitzaizten, baina gero, lan mundura jauzi egiten zutenean, eskola-koaz oso bestelako hizkuntza errealitatea topatzen zuten ikasle horiek, nahi baino gehiagotan. Ezin horren aurrean, enpresetara jo zuten eskolako arduradunek, euren ikasleei enpresetan praktikak euskaraz egin ahal izateko aukera eman ziezaieten, eta bide batez, esan beharrik ere ez dago, lan mundua euskaldunago egiteko gogo biziz. Elgoibarko Udalaren laguntza izan dute horretarako



**Ainara Argoitia** Amaia Astigarraga eta Alaiana Santos Mekako ikasle izandakoak Mendaroko Ospitalean.

**B**agenekien ez zela gai erraza kudeatzeko, enpresa pribatu askotan ez dagoelako erregulatuta hizkuntza-lerroa eta Eusko Jaurlaritzak ez daukalako ezer idatzita hori arautzeko, baina saiatu beharra genuen. Ikusten genuen bagenuela ikasle euskaldun masa handi bat eta baita ikasle horiei praktikak euskaraz egin ahal izateko aukera eskaintzeko modua izango lukeen enpresa multzo handi bat ere, baina jabetu ginen enpresek baliabideak falta zituztela". Edurne Bilbao IMHko Komunikazio arduradunaren berbak dira. Gehitu izeneko hiru urteko ikerketa-lanak emandako datuetan oinarrituta ari da Bilbao. IMHK, Lanekik eta Ahize-AEK hizkuntza aholkularitzak egin zuten ikerketa hori, Gipuzkoako Foru Aldundiak lagunduta, eta agerian utzi zuen Gipuzkoan hamar ikasletik zortzi gai dira euskaraz lan egiteko, seik hala egin nahiko luketela, baina lauk bakarrik egiten dituztela praktikak euskaraz. Ikaslan, Hete, Izea-Aice eta Ikastolen Elkarteko 39 ikastetxetako 1.457 ikasleri egin zieten galdeketak, eta horietatik D ereduak ikasi zuten 747 ikasletik 289k nagusiki gaztelaniaz egin zituzten praktikak. Are gehiago, enpresetako hiru instruktoretik bi euskaraz aritzeko gai izanda ere (instruktoreen %95), kasu ba-

tzuetan, euskara ez zekiten instruktoreak egokitu zitzaizkien ikasleei, eta beste kasu batzuetan, instruktorea euskal hiztuna izanda ere, gaztelaniaz egin zieten (instruktore euskaldunen, %19,4k).

Ondorioak argiak ziren, eta bat zetozen aurrez Errenteriako Don Bosco ikastetxea eskualde hartako garapen agentziarekin elkarlanean Oarsoalderako egina zuten diagnostikoarekin: "Baldintza batzuk ematen dira enpresetan praktikak euskaraz egin ahal izateko, baina enpresek baliabideak behar dituzte, besteak beste, hizkuntza paisaia aldatzeko, harrerako dokumentuak euskalduntzeko...". Bost bat urte badaramatzate Oarsoaldean alor honetan lanean, eta haien bideari jarraitu diete Elgoibarren. Hemen, hiru urte dira IMH eta MEKAK *Prestakuntza Euskaraz* egitasmoa martxan jarri zutela, Elgoibarko Udalaren laguntzaz. [Udalak emandako dirua ikastetxeek eurek kudeatzen dute, erdi-bana, eta Ahize-AEK enpresak egiten ditu aholkulari-lanak].

## 'Prestakuntza Euskaraz'

Elgoibarko enpresak edo Elgoibarko herriari zerbitzua ematen dioten enpresa edo erakundeak sartzeko diru berez proiektu honetan. Ikas-

tetxeek eurek gonbidatzen dituzte enpresak egitasmora, baina praktikak euskaraz egingo direla ziurtatzeko, jakina, nahitaez baldintza batzuk bete behar dituzte enpresa horiek, Aitor Valero Mekako Ulibarri programaren arduradunak azaldu duenez [Ikastetxeen hizkuntza normalkuntzarako programa da Ulibarri]. “Enpresak bermatu behar du ikasleari euskaraz egingo diotela harrera eta praktikagile horrek instruktore euskalduna izango duela hitzarmenak dirauen bitartean, behar dituen azalpen guztiak euskaraz emateko. Era berean, enpresako paisaia linguistikoa (errotulazioak eta abar) euskaraz egotea sustatuko dugu guk, eta baita ikasle horrek eguneroko lanerako jasoko dituen eskuliburu eta gainerako materialak euskaraz egotea ere”.

Egitasmo honetan hiru urterakoa izaten da ikastetxeek enpresekin sinatu ohi duten hitzarmena, eta Ahize-AEK aholkularitza enpresa arduratzen da enpresako hizkuntza erabileraren gaineko diagnostikoa egiteaz eta hitzarmenaren jasotakoa betetzen dela egiaztatzeaz. Enpresetara bisitak egiten ditu, diagnostikoa egin eta ikasleek zeintzuk behar izango dituzten ikusteko. Ondoren, enpresan ikusitakoa hobetzeko proposamenak ere egiten dizkie enpresei Ahize-AEK-k, eta baita itzulpegiak zerbitzua eskaini ere, “behar denetan”. Izan ere, eta IMHren kasuan bereziki, enpresa txikiak dira programara gonbidatu dituztenak, “euskaraz-oso bat egiteko zailtasunak dituztenak, baina lan mundua euskalduntzeko borondatea dutenak”. Hiru dira IMHrekin hitzarmena sinatu duten enpresak: Perihortz, Lauko eta Swisslan eta Bronymec batuko zaie aurren, eta momentuz bakarrarekin ari da lanean Meka, Mendaroko Ospitalearekin, baina aurreratu dute Elgoibarko beste enpresa batekin ere sinatzeko dutela aurki hitzarmena. “Gure helburua berriak erakartzea da. Badakigu enpresa mundua zein konplexua den eta kontziente gara euskara ez dela euren kezka nagusia, are gutxiago orain, baina pentsatzen dugu borondatea badutela. Aldi berean, ondo dakigu zein zaila den urteetan errotutako hizkuntza ohiturak aldatzea, baina pauso txikiekin bada ere, aurrera egin nahiko genuke”, dio Bilbaok.

“Borondate ona egon badago”, dio Aitor Valerok ere. Horixe topatu du berak enpresetara jo duenean. Mendaroko Ospitalearekin du hitzarmena sinatuta Mekak. Mendaroko Ospitaleak Euskara Plana du, eta elebitan dago ospital barruko errotulazio guztia. *Euskaraz bai sano* kanpainara ere batu ziren orain hiru bat urte, euskaraz egin nahi duten pazienteei komunikazioa euskaraz izan dadin erraztea bilatzen duen kanpainara, eta horren barruan, profesional euskaldunak eta elebitan dauden zerbitzuak identifikatzeko txapak eta kartelak ere atera zituzten, pazienteek jakin dezaten non eta norekin egin dezaketen euskaraz. Olga Vela Lersundi da Mendaroko Ospitaleko Prestakuntzarako gainbe-

*Joseba de Pablo Salegi, IMHko tailerrean.*



*Kristina Zuatzubizkar*

*Elgoibarko Udaleko Euskara teknikaria*

Udalak euskara sustatzeko ekintzen planaren baitan lan-tzen dituen bi esparruri eragiten die Lantokiko Prestakuntzak: irakaskuntzari eta lan munduari. Biak garrantzitsuak euskararen normalizaziorako, eta lehenasunekoak.

Lan mundua euskalduntzeko Udalak emandako urratsak diru-laguntzetan oinarritu izan dira gehienbat: Enpresetan euskara-planak abian jartzeko diru-laguntzak, lantokiko praktikak euskaraz egin ahal izateko diru-laguntzak, eta Lanbide eskolei euren eskola planetarako ematen zaizkien diru-laguntzak. Enpresetako planei dagokienez, orain dela urte batzuk, Debarroko udalok Ardatza egitasmoa jarri genuen abian, eta hainbat bisita egin genituen herriko enpresetan euskara planak sustatzeko. Egitasmo horren ondoren jarri genituen abian enpresetako euskara-planerako diru-laguntzak, eta harrezkero, urtero diru-laguntzen deialdi bidez eman ohi izan ditugu laguntzak.

Baina enpresak ahaztu gabe, oraingo honetan ikasleak dira protagonista, euren eskubidea baita euskaraz ikastea eta praktikak euskaraz egin ahal izatea, eta administrazioari eta hezkuntzari dagokio hori guztia bermatzea. Gure herriko Lanbide eskolek ahalegin berezia egin dute ikasketak euskaraz ere eskaini ahal izateko, eta penagarria da behin hori lortuta lan munduan ikasketa horien jarraipena gaztelaniaz egin behar izatea. Kezka hau transmititu izan digute eskolek, eta zerbait egin nahian, orain dela urte batzuk, eskutitz bat bidali genuen herriko enpresetara bertan praktikak euskaraz egin ahal izateko aukera eman zezaten eskatuz. Horrek eraginik handirik ez zuela eta, 2013tik aurrera, praktika horiek errazteko diru-laguntzen lerro berria jarri genuen abian.

Diru-laguntza hauen xedea da egitasmoak bultzatzea, Elgoibarko MEKAKo eta IMHko ikasleek herriko enpresetan edota erakundeetan prestakuntza praktikak euskaraz egin ahal izan ditzaten.

Esan beharra dago, Udalak hartutako neurri hauek guztiak herriko Lanbide eskolekin adostutakoak izan direla, eurak dira eta egoeraren berri dutenak eta arazoa bertatik bertara ezagutzen dutenak. Horregatik, Udalak oso egoki irizten dio IMHk eta MEKAK azken urteotan lanbide ikasketak euskaraz eskaintzeko egindako ahaleginari. Horretaz gain, nabarmentzekoak dira IMHk 30+10 mintegia antolatzeko egindako lana, eta Gehitu egitasmoa abian jarri izana.

Eta bukatzeko, iazko 30+10 mintegian eragile publiko garenoki egindako proposamenak ekarri nahi ditut gogora: eredugarriak izatea, eta babes, sustapena eta sari-bideak jartzea. Elgoibarko Udalak, behintzat, gogoan izango ditu hiru proposamen horiek aurrerantzean.



giralea, ikastetxeekin harreman zuzena duen pertsona. Ikasturtean zehar praktiketarako zenbat ikasle har ditzateken aztertu eta bera arduratzen da gero ikasleei harrera egiteaz. “Euskaraz, jakina”, dio. Osasungintzan euskaraz egitea zein garrantzitsua den nabarmendu du, eta pausoan-pausoan ari direla hobetzen, nahiz oraindik zer hobetua badutela aitortu. “Lehentasunezko gaia da guretzat euskara”, dio. Azken urteotan aurrerapauso handiak egin direla nabarmendu zuen Garbine Garai Hizkuntza Normalkuntzarako teknikariak ere telebistako *Tribunaren Berbak* saiorako egindako adierazpenetan, baina era berean, onartu zuen euskararen normalizaziorako legeak eta planak lar berandu iritsi direla osasungintzara. “Guk geu ahalegina egiten dugu”, bukatu du Olga Velak.

Hain justu ere, Olgak egin zien harrera Amaia Astigarraga eta Alaiana Santos Mekako ikasleei praktiketako lehen egunean. “Euskaraz egin ziguten harrera eta gainbegiralea ere euskalduna jarri ziguten, baina eguneroko lanean, errealitatea beste bat izan zen. Txanda aldatze asko izaten dira ospitalean, eta lanean, euskaldunak eta euskaldun ez direnak ere badaude. Nik neuk erdaraz gehiago egin behar izan nuen. Pertsonen kontua da. Harrera euskaraz egitea eta errotulazio guztia elebitan egotea ziurtatuta dago Mendaroko Ospitalean nik uste, baina gero erizain euskaldunek ere erdaraz egiten badute euren artean... Hori zaila da konpontzen”, aitortu du Amaia Astigarragak. Amaiak esandakoarekin bat dator Alaiana Santos ere. Amaiak bezala, erizain-laguntzaile izateko ikasi du berak, eta euskaraz egin ditu ikasketak, nahiz aitortu duen gaztelaniarako joera handiagoa duela berak, erraztasun handiagoa duelako. Amaiak ez bezala, gaztelania du etxeko hizkuntza Alaianak. “Nik badakit saiatu behar dudala euskaraz egiten, batez ere euskaraz komunikatu nahi dutenekin, eta saiaturen naiz, baina aitortuko dizut inguruan gaztelaniaz entzuten badut kosta egiten zaidala euskaraz dakien horrekin ere euskaraz egitea”. Ohiturak aldatzearen zailaz mintzo da Alaiana Santos, euskararen normalizazioan diharduten profesionalen kezka nagusiaz.



*Jesus Iriondo, Perihortzeko enpresako gerentea.*

Beste bat da Joseba de Pablo Salegik Perihortz enpresan topatu duena. Joseba de Pablok gaztelaniaz egin zituen ikasketak Pilarren eta Mekanizazioko erdi mailako zikloa eredu mistoan egin du IMHn. Lanmunduan izan duen lehen esperientzia, baina, “erabat euskalduna” izan da, eta berari batzuetan nekeza egin bazaio ere, oso modu positiboan baloratzen ditu ekimen hauek, “hemengo hizkuntza euskara delako”.

Euskaraz bizi den enpresa egokitu zaio Joseba De Pablori praktikak egiteko. “Hemen denok gara euskaldunak. Erdaraz ez dakiena errazago topatuko duzu hemen”, esan du Jesus Iriondo gerenteak. Tailerretik dator bulegora, eskuak belztuta. “Hemen gerenteak ere edozer-tan egin behar izaten du, bizi nahi badu”, desenkusatu da. IMHkoak programa honetara batzeko gonbidatuz joan zitzaizkionean ez zuen dudarik egin baietza emateko. “Euskararen alde egiteko gu beti prest”. “Eskatzen zutena betetzeko arazorik ez genuen guk, mutilari euskaraz egitea eskatzen zigutelako azken batean, eta guretzat normalena horixe delako, baina eskatu izan balidate orain agiri denak euskaratzen eta hasteko... Egin beharko nuke, eta gai den jendea ere izango genuke, gure mutil denek euskaraz ikasi dutelako IMHn, baina enpresa bat aurrera ateratzeko horrenbeste lan egin behar da, euskara beste plano batean gelditzen dela sarri. Gu euskaldunak gara, eta ez zaigu kostatzen euskaraz egitea, baina enpresetan badaude beste kezka batzuk ere, batzuetan handiagoak direnak”.

**Ehun metro koadroko tatamia  
alokatzen da orduka.  
Egokia yoga, pilates, arte martzialak  
eta abarrak egiteko.  
Informazioa 676 534 106**

**Tatamia alokairuan!**

**Mari Jose  
Ruiz Porres**  
Doktorea  
**GINEKOLOGOA**  
[mj.ruizporres@gmail.com](mailto:mj.ruizporres@gmail.com)

**Madina Radiologia**  
Toribio Etxeberria 4, 1 - Eibar  
Tel.: 943 202 857

**Zu zaintzeko zerbitzu onena eskaintzeaz gain,  
profesionaltasunari eta pazientearekiko tratu  
atseginari eusten jarraituko dugu.**





# Jata, jaku

Euskal Eskola Publikoaren jaia egin zuten domekan Elgoibarren, eta Euskal Herri osotik etorritako jendea bildu zuen jaiak. Era askotako ekitaldiak izan ziren han eta hemen, denak ere, Elgoibarko eskola publikoaren baloreei loturikoak. Orriotan dituzue eguneko argazkiak. Erretratu gehiago ikusteko: [www.barren.eus](http://www.barren.eus). Argazkiak: BARREN, Herri Eskola eta [Elgoibar.eus](http://Elgoibar.eus).











## Kalamua Guraso Elkarte

*Gustatzen Jata, Gustatzen Jaku Euskal Eskola Publikoa*

“Jai hau esku artean hartu genuenean gure eskola herrira jaitea zen helburua, urteko eta jai-eguneko ekintzekin. Gure desioa herriko txoko guztiak gure eskolako ezaugarri eta baloreez bustitzea izan da. Urte osoko ekintza guztiak irekiak, parte-hartzaileak, euskaldunak eta kolorez beteak izan dira, herri osoari zabalik, guztion artean ospatzekoak. Herriak gurekin bat egin du, eta eskertuta gaude; pozik gaude. Ibilbide honetan gure ametsari musika ezin hobea jarri diogu, abestiak arrakasta itzela izan du, hitzak, musika eta dantza bera ere arrakastatsuak izan dira; gustatu jaku.

Eta, zer esan jaiari buruz! Emozioz betetakoa izan zen, ederra. Giro jatorrean bizitako eguna, familian gozatzeko; guztiok bat egin genuen hamaika ekintzetan. Ekintza guztiak burutu ziren: arduradunen artean elkarlana itzela izan zen, boluntarioak etengabe aritu ziren laguntza eskaintzen, eta erantzun paregabea eman zuten gurasoek. Eta haurrak? Zein pozik ibili ziren, eta zein nekaturik bukatu zuten. Aipagarriak gure eskolako haurrak! Ikusten genituen bakoitzean, irribarre berezi bat zuten, harrotasun puntu bat; beraien eguna zen, Jataren eguna, irribarrez betetako eguna. Mila esker guztioi. Pozik eta hunkituta gaude Herri Eskola osatzen dugun guztiok, Jataren arrakasta itzela izan delako. Zenbat zorion jaso ditugun gure erle maitagarriarengatik. Jata gure eskolako beste kide bat da, eta beste hainbat eskoletan ere maite dute, beren egunerokoan barne-



Goian: Ainhoa Mateo, Iñigo Palomino, Rakel Agirre, Itziar Aranbarri, Noemi Otegi, Julene Leon, Miren Olabe, Imanol Zubizarreta, Jesus Mari Makazaga, Edu Uranga. Erdian: Iñaki Gil, Juan Cruz Zuñiga, Esther Alonso, Mikel Juaristi, Andrea arriola, Roberto Altzerreka, Ainhoa Aduriz, Ana Etcheverry, Miren Pagoaga, Amaia Baskaran. Behean: Silvia Gabiola, Nerea Gorostiza, Erroka Castrillejo. Falta dira: Nere Oñederra eta Jon Basurto.

ratu dute. Asmatu dugu gure Jatarekin.

Gure eskolako haur, guraso eta irakasleak helburu komun baten elkarlanean jartzea eta desio eta ilusioz denok tribu berekoak gara- la konturatzea, denok norabide berean goazela jakinarazteak indartu eta harrotasunez bete gaitu. Mila esker gurekin bat egin duzuen guztioi, eta laster arte!”



## Alcorta Forging Group

*Alcorta gizarte ekintzan*

“2015eko Kudeaketa Planaren barruan Alcorta enpresa gizarte gaietan arduratsua egitea erabaki dugu, bai langileekin eta baita gure inguruarekin ere. Alcorta herriko enpresa bezala hartzea nahi dugu, herriaz arduratu eta herriko gizarte eragileekin lan egiten duen enpresa bezala, alegia. Herriko elkarte eta eragileei babesna eman nahi diegu, gure langileen borondatezko lanarekin. Horretarako, herriko 20 bat elkarterekin bildu gara haien beharrak ezagutzeko, eta gure asmoa horietako 7-8rekin elkarlana sustatzea da. Ez da epe motzerako dugun proiektua; epe luzerakoa izatea nahi dugu, Elgoibarko herriari balioa emango dion proiektua. Orain arte hainbat erakunderekin kolaboratu izan du Alcortak, bereziki, babes ekonomikoa ematen, baina aurrerantz-

an gure lana eta denbora ere eskaini nahi diegu. Proiektu hau koordinatu eta dinamizatzeko Alcorta Gizarte Ekintza Batzordea sortu dugu. Hamar lagunek osatzen dugu taldea, eta ia barixakuro biltzen gara aurrera eraman beharreko ekintza eta estrategiak zehazteko.

Gure lehenengo lana joan zen domekan burutu genuen: Alcortako 24 langilek Euskal Eskola Publikoaren jaietan jardun zuten boluntario lanetan, trafikoa eta autoen aparkalekuak kudeatzen. Era berean, gure enpresako aparkalekua erabiltzeko aukera eman genien antolatzaileei, kanpotik etortzen zirenek han aparkatu zezaten. Elkarlaneko lehen esperientzia hori polita izan zen, eta espero dugu proiektu emankor baten hasiera izatea”.





# UDA HONETAN ZATOZ ZEN EGITEIRA

*eta nuke, baleki, zenekien...*

*zitzaion  
dezakezu  
litzaidake*

*genekien  
zetorren  
naiteke*

AURKIEZAZU  
ZURE BARNEKO OREKA,  
EUSKARAREN BIDEZ

*eman izena  
Gipuzkoako euskaltegietan*



# Aldarri bat baino gehiago

Urtebete joan da Gure Esku Dago mugimenduak Durango eta Iruñea batu zituen giza kate historiko hura egin zuenetik, eta geroztik lanean ibili dira auzoz auzo eta herriz herri erabakitzeko eskubidearen alde indarrak batzen. Orain, ekainaren 21ean, borondate guzti horiek elkarri josi eta hautetsontzi handiak eraikiko dituzte. Donostian, Bilbon, Gasteizen, Iruñean eta Baionan jai bana egingo dute egun horretan, gaurko hautetsontzia, biharko erabakia lelo hartuta, eta parte hartzera deitu dute.

Ainara Argoitia



Donostiako sei zubietan egingo den oihal-katearen irudia.



Urteetan herri honetan sortu diren lubakien jakitun, dauden ezinikusiak gainditu asmoz eta hiru ardatzetan euskal herritar guztiak batu ditzakeen ustez ari dira lanean Gure Esku Dago herri mugimendukoak, eta ekainaren 21ean beste pauso bat eman nahi dute. Jendez bete nahi dituzte Baiona, Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Iruñea, sinistuta daudelako erabaki nahi duen herri bat elkarlanean jartzea lortuz gero, bidearen erdia egina dagoela. “Ez gara jai aldarrikatze. Aldarria bera baino gehiago, erabaki hori nola eta noiz gauzatu da gure erronka, eta horretara goaz”, adierazi zuen Zelai Nikolas Gure Esku Dago kideak ekainaren 21eko jaiaren aurkezpen ekitaldian. Alderdi politiko bakoitzaren “estrategia eta interesetatik harago”, herritarren borondateak elkartu nahi dituzte, eta horregatik jostearen ideiarekin bueltan aritu dira lanean azken hilabeteotan herrietan, baita Elgoibarren eta Mendaron ere. Orain, herriz herri josi diren oihalak batu dute ekainaren 21ean, herritarren borondateen elkar-tze hori irudikatzen.

Gipuzkoarrak Donostian elkartzera deitu dituzte. Gainerako festaguneetan bezala, egun osoko egitaraua antolatu dute Donostian, baina berez bi izango dira eguneko ekitaldi nagusiak. Batetik, eguerdian, 12:00etatik 12:30era bitartean, oihal kate handi bat egingo da Urumeako sei zubietan, 4,8 kilometro pasatxokoa. Herri batzordeetara batu den jendeak hartu du katea

osatzeko ardura, eta 1.942 lagunek parte hartuko dute. Elgoibar eta Mendarokoei [Debabarena osoari berez] Mundaiztik Agirre Lehendakariaren arteko zatia betetzea egokitu zaie, Tolosaldekoekin batera. Ondoren, katea bukatuta, zubirik zubi kalejira egingo da Anoetaraino, musikaz lagunduta. Musika ere egin diete deialdia antolakuntza nagusitik. Zurriola zubian batzeko eskatu diete txistulariei, Santa Katalinan elektrotxarangei, Maria Kristinan trikitilarietara, Mundaizen batukada taldeei, Agirre Lehendakariaren txarangei, eta Realaren zubian, dultzainero eta gaiteroei.

Egunaren puntu gorena baina, arratsaldean izango da, Anoetan 17:30etik aurrera [16:30ean zabalduko dituzte ateak]. Herri eta auzoetan jositako oihalen bitartez hautetsontzi erraldoiak eraikiko diren momentua izango da. Ekitaldi hori zuzenean jarraitu ahal izango da minies-tadio inguruan jarriko dituzten pantailetan ikusteko.

EHBildu eta EAJren babesarekin apaindu zuten Mendaroko udaletxea.







**AINHOA MENDIBIL**  
Elgoibar, 1988  
Gure Esku Dago  
Mugimenduko kidea

## “Herritarron garaia dela esan eta esan ari gara eta tokatzen zaigu erakustea”

### Ekainaren 21eko egunean parte hartzera deitu duzue. Zergatik hartu beharko genuke parte?

Iaz giza katera joan ginen arrazoi beragatik eta iaz giza katera joan ez eta damutu zen jendeak sentitu zuen horregatik parte hartu beharko genuke. Iaz, giza katea aurreko egunetan geuk ere zalantza egiten genuen lortuko ote genuen, mereziko ote zuen, baina elkarri eskua eman bezain laster uxatu zitzaizkigun zalantza guztiak, eta orain ere, autobusak Donostiara allegatzen ikusten ditugunean eta oihalei heltzen diogunean konturatuko gara benetan merezi duela. Baina bada beste arrazoi bat ere: esan eta esan ari gara herritarren garaia dela, erabakitzeke eskubidea gure esku dagoela eta geure etorkizunaren jabe izan nahi dugula, eta horrelako egunetan tokatzen zaigu hori erakustea. Mereziko du, lehenengo eta behin, erakusteko geure buruari zenbat balio dugun, eta gero, erakusteko munduari hemen gaudela eta aurrera egin nahi dugula. Donostian, 2.000 lagunetik gora ariko dira txandaka lanean, herritarrok herritarrentzat antolatutako egun handian.

### Zer aurreratu genezake arratsaldeko ekitaldiaz?

Norbaitek pentsatu dezakeenaren kontra, arratsaldeko ekitaldia ez da izango jarritako egoteko ekitaldi bat. Denbora osoan parte hartzera bultzatuko gaituen ekitaldia izango da, hunkituko gaituen ekitaldia eta etxera bueltatutakoan ‘hau ona! Ni hor izan naiz!’ pentsaraziko diguna. Bide guzti honetan gure ekarpena handia dela sinistarako digun ekitaldia izango da, herritarrak izango direlako protagonista. Gipuzkoako artista ezberdinek parte hartuko dute, sorpresa ugari izango dira, eta bukaeran, behin eta berriz aitatu dugun hautetsontzia eraikiko dugu.

### Honen hurrengo zer dator?

Oker handia litzateke pentsatzea Gure Esku Dago urtero zerbait antolatuko duela. Gure Esku Dago sortu bazen, hiltzeko sortu zen. Hau da, Gure Esku Dago badauka helburu bat: herri honek bere etorkizuna erabakitzea. Hautetsontzia eraikitzen goaz orain, baina gero erabiltzeko. Zelai Nikolasek esan zuen: “Erabakitzeke eskubidea noiz eta nola gauzatu da gure erronka”. Irailaren 19rako deitu dugu hurrengo batzarra, aurrera begira zer pauso emango ditugun denon artean erabakitzeko.

## EGITARAUA

- **12:00-12:30** Oihal katea, Urumeako sei zubietan.
- **16:30** Anoetako ateen irekiera.
- **17:30** Ekitaldi nagusia Anoetan.

Gainerako egitaraua:

### ALDE ZAHARREAN.....

- 12:30etik aurrera:
- Kalez kale: kantu jira, kaskarinak eta Donostiako Txistulariak

### BULEBARREAN.....

- Herri dantzak

### ANOETA INGURUAN.....

- 11:00: Guneen irekiera. Jatekoa eta edatekoa: sagardo dastaketa, txekor erreka, taloak, kazulitak, edariak...

- 20:00: Ospakizun erromeria


### MINIESTADIO INGURUAN.....

- Ogitaratekoak, taloak, edariak...
- 11:30-00:00 Kontzertu Maratoia

### ILUNBEN: FAMILIA GUNEA.....

- Puzgarriak, tailerak, abentura parkea, tiro-lina, apar-festa, txosnak...
- 12:30 ‘Ilunbe izarez argitu’ ikuskizuna. Irrien lagunak, Gipuzkoako pailazoak, suhiltzaileak, ‘Gu ta gutarrak’...
- 14:00 Iri Bazkaria
- 15:30 Dantzaldia. Txantxariak eta Irrien Lagunen eskutik

Gainerako hiriburuetan izango denaren berri izateko: [www.gureeskudago.net](http://www.gureeskudago.net).



## ANOETARAKO SARRERAK

Antolakuntza gastuei aurre egin ahal izateko, ekainaren 21ean Anoetan egingo den ekitaldirako sarrerak salgai jarri dituzte, eta Elgoibarren eta Mendaron ere eskuratu daitezke. 0-2 urte artekoek doan izango dute Anoetan sartzeara, baina sarrera hartu beharko dute. 3-14 urte bitartekoek 5 euro ordaindu beharko dute, eta 14tik gorakoek, 10 euro. Elgoibarren eta Mendaron, plazara irtengo dira datozen bi barixaku arratsaldetan, baina horrez gain, Elgoibarko kasuan, Pitxintxun eta Gorostizan ere eskuratu daitezke sarrerak.

## EKITALDIRAKO KAMISETA BEREZIAK

Ekainaren 21eko ekitaldirako izokin-koloreko elastiko bereziak atera dituzte, *Gaur hautetsontzia, bihar erabakia* leloarekin, eta ekitaldi nagusira doazenei jantzita eramateko eskatu diete. Helduen kamisetek 12 euroan jarri dituzte salgai, eta haurrenak, 10 euroan.

## AUTOBUSAK

Elgoibarko eta Mendaroko herri batzordeek autobusak antolatu dituzte. Elgoibarren bi aukera jarri dituzte: Goizez joan nahi dutenentzat 10:00etan irtengo da autobusa Maalatik eta zuzenean arratsaldeko ekitaldira joango direnentzat, 15:30ean. Bueltako autobusak 20:00etan izango dira. Goizeko autobuserako tiketak 10 euro balio ditu, eta arratsaldekoak, 7, eta ostiraletan plazan jarriko duten mahaian erosi daitezke edo bestela [elgoibarged@gmail.com](mailto:elgoibarged@gmail.com) helbidera idatzita. Mendarotik, goizeko 10:00etan irtengo da autobusa eta 20:15ean itzuli, eta gaur jarriko dituzte tiketak salgai.

## ‘Bohemioen kluba’ antzezlanaren estreinatuko du Taupadak gaur zortzi Elgoibarko Herriko Antzokian

22:30ean hasiko da antzezlanaren estreinatzea, eta 80 minutuko iraupena izango du



Taupadako kideak.

**T**aupada antzerki taldeak obra berri bat ekoiztu du, eta datorren barixakuan estreinatuko dute Elgoibarko Herriko Antzokian.

*Bohemioen Kluba* izena jarri diote antzezlan berriari. Ikuskizuna Pariseko Montmartre auzoan kokatzen da, Bigarren Mundu Gerraren ostean. Bizirik irautea lortu dutenekin elkartu ohi da Madame Edith gauero: artista, poeta, filosofo, idazle, margolari, modelo, marinel, abeslari eta musikariekin, hain zuzen ere. Pertsonaia bakoitzak bere bizitzaren gorabeherak erakutsiko dizkigu: oroimena, tristura, itxaropena, frustrazioa, etsipena, amodioa eta desamodioa izango dira, besteak beste, antzezlanaren jorratuko diren gaiak. Melodrama eta umore beltza generoa lantzen du obrak, absente ukitu batzuekin.

Edurne Lasa izan da obraren zuzendaria, eta Joxe Mari Larrañaga arduratu da argiztapenaren eta musikaren alor teknikoaz. Eta protagonistak, berriz, Elgoibarko aktoreak izango dira; Elgoibarko aurpegi ezagunek emango diete bizia antzezlaneko protagonistei, eta eurak izango dira obrako *bohemioak*: Iraider Garcia (Madame Edith), Ana Moñux (Odile), Jon Olivares (Evaristede Parny, La Divina abeslaria eta Fabio), Nagore Cid (Lea kazetaria), Iker Mancebo (Filosofoa eta Bernard), Enkarni Migales (Filosofoaren gidaria eta postaria), Sara Iriondo (Antonella abeslaria eta Amadeo marinel), Ainhoa Zapata (Lili eskusoinujolea), Ibai Leon (Maurice modeloa), Daniele Zelaia Cooper (Mixel margolaria) eta Jon Etxeberria (Pierre gudamutila).

Horrez gain, Taupadako arduradunek eskerrak eman nahi dizkiete Inma Mugerzari, Danele Sarriugarteri, Mikel Olaizolari eta Josemari Lasari egindako ekarpenagatik, eta Iban Urizarri, bere musika erabiltzeko aukera eman dielako.

Taupada taldeko kideak entseguetan ari dira azken asteotan, eta antzezlaneko detaile guztiak prestatzen ari dira. Gaur zortzi estreinatuko dute obra, 22:30etik aurrera. Sarrerak dagoeneko salgai daude Pitxintxu opari-dendan.

Azken urteetan hainbat obra taularatu izan ditu Taupadak Elgoibarren: *Isladak* izan zen 2010ean, *Rusini zirkoa* 2012an, eta *Erotik* 2013an. Horrez gain, arte eszenikoen agerraldia ere egin zuten 2013an, musika, dantza, antzerkia eta bertsozaintza esketz laburretan taularatu.



# Atzo banatu zituzten IMH Sariak

Lau sari banatu zituzten eta bi aipamen berezi egin

**H**eziketa Zikloetako diplomak banatu zituzten atzo IMHn, eta ekitaldi hori bera baliatu zuten 2015eko IMH Sariak banatzeko. Lau sari banatu zituzten, eta horrez gain, bi aipamen berezi egin zituzten. Ikasle ohi aipagarriaren saria Egoitz Gurrutxaga elgoibartarrak jaso zuen. 1997-1998 urteetan ikasi zuen Erdi Mailako Mekanizazio zikloa, eta Lantokiko Prestakuntza Itziarren egin zituen Hobetu SL mekanizazio-laguntzaile enpresan. Ondoren zortzi urtez jardun zuen Elgoibarko Beitxi enpresan, eta 2003an Mendaroko Zehatzen hasi zen (Grupo Egile). Gaur egun, Ekoizpen arduraduna da eta ikasle-lankide Dual berrien tutore lanetan jarduten du.

Ikasle aipagarriaren saria Endika Vazquez eibartarrari eman zioten. 29 urte ditu, eta Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioko goi-mailako zikloa ikasi du. Mendaroko Zehatz enpresan egin ditu

praktikak, eta astelehenean Talleres Mylen hasiko da lanean. 500 euroko saria jaso du. Eredu Dualeko saria, berriz, Unai Alonso elgoibartarrarentzat izan da. Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi-mailako heziketa zikloa ikasi du, eta Arrasateko Ekiden egin du Duala. Honek ere 500 euroko saria jaso du.

Elgoibarko ikasle aipagarriaren atalean Adolfo Mujika saritu zuten. Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi-mailako zikloa ikasi du, eta Lan-Bin praktikak egin ondoren, lanean hasi da. Udaletxeko plaka eta IMHko Iraunkorreko ikastaroa doan egiteko aukera jaso ditu.

## Aipamen bereziak

Aipamen berezia jaso zuten, bestalde, Iker Iraeta eta Andoni Luque eibartarrek, ikasle ohi ekintzaile alorrean, duela zortzi urte Ikan enpresa sortu eta lanean jarraitzen dutelako.



*Egoitz Gurrutxaga, ikasle ohi saritua*

Azkenik, aitortza berezia jaso zuen Jon Lapeira ikasleak, Spain Skills olinpiadetan urrezko domina jaso zuelako CNC tornufresatzeko makinaren probetan.

## Giro onean ospatu zuten Ikastolaren Eguna zapatuan



Ikastolaren Eguna ospatu zuten joan zen zapatuan, "giro oso onean". Ume zein nagusientzako ekintzak prestatu zituzten, eta eguna umore onean joan zela nabarmendu dute antolatzaileek. Tailerretan ume askok hartu zuten parte, eta puzgarrietan ere jende asko ibili zen. Era berean,

Niala magoaren ikuskizunak eta flashmob-ak jende asko batu zuela azaldu dute. Tonbolara ere jende ugari hurbildu omen zen, eta opari "ederrak" irabazi zituzten askok. Arduradunen iritziz, bazkarian ere giro polita egon zen, enkantean ere parte hartu zuen jendeak eta DJ-ak denak dantzan jarri zituen. Balorazio oso positiboa egin dute antolatzaileek. Ikastolaren eguneko errifaren zenbaki saridunak ondorengoak dira: 1. saria, 544 (erresebakoa, 1226) eta 2. saria, 621 (erresebakoa 2107).



**PEDRO MIGUEL URRUZUNO,  
S.KOOP**

**OHIKO BATZAR NAGUSIA  
Deialdia**

**Eguna :** 2015ko ekainaren 18a  
**Ordua:** 18:30ean lehen deialdian eta  
19:00etan bigarrenan  
**Tokia:** Ikastola, Ermuaranbide, 7 - Elgoibar

## Euskadiko selekzioak irabazi du Emakumezkoen Lau Nazioen txapelketa

IMHko kiroldegia estreinatu dute txapelketa honekin

**E**uskadiko selekzioak irabazi zuen Emakumezkoen Lau Nazioen Torneoa. Valentziako selekzioaren kontra jokatu zuten finala, eta 28-24 irabazi zuten euskaldunek. Imanol Alvarez Euskadiko selekzioko hautatzaileak aurreratu zuen orain arteko selekziorik "osoena" osatu zuela Elgoibarren jokatzeko, eta adi-tuek ere Euskadi jo zuten torneoa irabazteko faboritotzat. Ez zuten hutsik egin. Zapatuan 30-28 irabazi zion Euskadik Kataluniako selekzioari. Valentziako eta Galizia-ko selekzioek ere jokatu zuten elkarren aurka zapatuan eta valentziarrak gailendu ziren, 26-22ko emaitzarekin. Hortaz, Euskadi eta Valentziako selekzioek jokatu zuten finala domeka eguerdian. Lehen zatian partida parekatua jokatu zuten bi taldeek eta 13nako berdinketarekin iritsi ziren atse-denaldira.

Bigarren zatiko hamargarren. minututik aurrera, baina, jokoan zein markagailuan nagusitzen hasi zen Euskadiko selekzioa



eta lau goleko aldeaz irabazi zuen finala. Kataluniarrak sailkatu ziren hirugarren, eta Galiziakoak izan ziren azkenak.

### IMHko kiroldegiaren inaugurazioa

Elgoibarko Udalak Lau Nazioen Torneoa baliatu zuen IMH kiroldegi berria inauguratzeko, eta zapatuan egin zuten ekitaldi ofiziala. Alfredo Etxeberria jarduneko alkateak eta Ricardo Garate jarduneko kirol zinegotziak plaka oroigarriak eman zizkie-

ten Lau Nazioen txapelketan parte hartu duten selekzio guztiei. Kirol ekipamendu berri honek 1,1 milioi euroko kostua izan du. Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 200.000 euro jarri dituzte bakoitzak, eta gainerakoa Elgoibarko Udalak jarri du. Kantxa eta harmailuz gain, aldage-lak eta muskulazio gela bat ere baditu instalazio berriak. Ramon Mugicak erakutsi digu kiroldegi berria. Bideoa ikusteko, [www.barren.eus](http://www.barren.eus).

## Datorren barixakuan jokatu dute emakumezkoen pala txapelketako finala



Emakumezkoen binakako pala txapelketa iritsi da amaierara. Aste honetan jokatu dituzte ligako azken partidak, eta datorren astean jokatu dira finalerdiak eta final nagusia. Finalerdiak eguaztenean jokatu dira, eta finala barixakuan izango da. Kalegoen plazan jokatu dituzte partidak, baina euria egiten badu, ikastolako frontoian izango dira. Finalaren aurretik pala mistoko partida bat jokatu dute, irailean hasiko den bikote mistoen txapelketaren aurrerapen modura, eta partida horren ostean errifaren zozketa egingo dute. 18:30ean hasiko dira ekitaldiak.

## 300 bat lagun batuko dira bihar CD Elgoibarrek antolatu duen Paella janean

Futbol denboraldiari amaiera emateko paella jana antolatu du CD Elgoibarrek bihar-ko. CD Elgoibarko jokalaria eta teknikariekin batera, jokalarien guraso eta klubeko bazkideek ere hartu ahal izango dute parte, eta antolatzaileek jakinarazi dutenez, 300 bat lagun batuko dira. Bazkalostean denboraldiko talde eta jokalaria onenen sariak banatuko dituzte.

Bestalde, CD Elgoibarrek ekainaren 25ean egingo du urteko batzar orokorra, 19:00etan hasita, Kultur Etxeko hitzaldi gela. Urteko balantze ekonomikoa aurkeztuko dute, eta kirol balorazioa ere egingo dute.

Era berean, Klubeko arduradunek gogorarazi dute datorren denboraldian futbol eskolan parte hartu nahi dutenentzako izena emateko epea zabalik dagoela. Interesatuak Mintxetako bulegora jo dezakete edo [cde@cdelgoibar.com](mailto:cde@cdelgoibar.com) helbidera idatzi.



# Gasteizko Mendiak proban Lendinez eta De la Horra izan dira gure onenak

874 lagun batu ziren irteeran, tartean 74 emakume

**G**asteizko Mendiak mendi lasterketa jokatu zuten joan den zapatuan Gasteiz inguruko mendietan, eta Ainhoa Lendinez eta Gorka de La Horra Lizarpe taldeko kideak izan dira gure ordezkari onenak. De La Horrak bederatzigarren postuan amaitu zuen proba 6:21:30ko denborarekin, irabazlearengandik 40 minutura. Lendinezek Lendinezek 8:03:02ko denbora behar izan zuen 61 kilometroko ibilbidea osatzeko, eta laugarren egin zuen emakumezkoetan. Elgoibartar eta mendaroar dexentek hartu zuten parte proban, eta Elgoibarren lan egiten duen Javi Domingez gasteiztarrek laugarren postua lortu zuen (6:00:23). Ehunmiliak proba birritan irabazitakoa da Domingez. Guztira 874 lagunek hartu zuten parte, eta horien artean 74 emakumeak izan ziren.



## Ramon Garcia txirrindulariak hirugarren egin du, Euskal Herriko erlojupekoan

Erlojupeko master mailako Euskadiko txirrindularitza txapelketa jokatu zen, joan den maiatzaren 31n, Zallan, eta Ramon Garcia Gobike taldeko txirrindulari elgoibartarrak hirugarren egin zuen, 30 urtetik gorakoen kategorian. 30 lagunek hartu zuten parte proban, eta sailkapen nagusian laugarren postuan sailkatu zen. Irabazleak baino 32 segundo gehiago behar izan zituen elgoibartarrak proba osatzeko.



## Bihar irekiko dituzte Mintxetako aire libreko igerilekuak

Bihar hasiko da uda denboraldia Mintxetako igerilekuetan, eta irailaren 6ra arte egongo dira zabalik. Astelehenetik barixakurra 11:00etatik 20:30era egongo dira zabalik, eta asteburu eta jai-egunetan 10:00etatik 20:00etara. Abuztuan eta irailean 20:00etan itxiko dira igerilekuak, eta Txiki Egunean itxita egongo da. Eguneko sarrerak 6 euro balio ditu (18 urtetik beherakoek, 4 euro). Hala ere, Hala ere, bost sarrerako bonoak (24 euro eta 16 euro) edo denboraldiko osokoak ateratzeko aukera ere bada. Informazio gehiago Olaizaga kiroldegian edo Mintxetan eskuratu daiteke. Iaz, eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu eta aurreko bi denboraldietan baino erabiltzaile gutxiago eduki zituen igerilekuak. Arduradunek emandako datuen arabera, irailaren 2ra arte zenbatutako erabiltzaile kopurua 34.522 izan zen.

## Infantil Txiki taldeak Ohorezko Mailan jokatu du datorren denboraldian



CD Elgoibarko Infantil Txiki taldeak Gipuzkoako txapelketa irabazi du, eta honenbestez, Ohorezko Infantil Mailan jokatu du hurrengo denboraldian. Oñatiko Aloña-Mendi taldearen aurka jokatu zuen finala, Bergaran, eta elgoibartarrek 2-3 emaitzarekin irabazi zuten partida.

Lehen mailan diharduen infantil taldeak, berriz, 2-3 galdu zuen Euskalduna taldearen aurka Zumaian jokatu zuten finalean. Azken unera arte markagailuan aurretik joan ziren elgoibartarrak, baina markagailuari buelta eman zioan Euskalduna taldeak azken minutuetan.

## LANA

### ESKAERA

- Neska eskaintzen da umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko zein garbiketa lanetarako.  
☎ 606 007 742 (Fatima)
- Mutila eskaintzen da etxebizitza edo lokaletan igeltsero eta mortero lanak egiteko edo gotele-a kentzeko. Prezio onean.  
☎ 658 577 563
- Atzerriko hizkuntzan diplomatuak ingeleseko klase partikularrak ematen ditu. Ekaina eta uztaila. HH, LH eta DBH.  
☎ 659 024 427
- Mutila eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetarako edo baserriko lanetarako.  
☎ 686 077 316
- Matematika, fisika eta kimikako klase partikularrak ematen dira DBH eta Batxilergoko ikasleentzat.  
☎ 685 706 001
- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko eta baita garbiketa lanetarako ere.  
☎ 636 517 025
- Cambridge FCE azterketa prestatzeko ikastaro intentsiboa ematen da uztailean, goizez. Informazio gehiago: [fce.uztaila@gmail.com](mailto:fce.uztaila@gmail.com)  
☎ 673 364 623
- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat eta berehala hasi naiten lanean. ☎ 686 077 564
- Neska eskaintzen da nagusiak edo haurrak zaintzeko zein garbiketa lanetarako. ☎ 632 878 035
- Neska eskaintzen da gauzez adinekoak zaintzeko. Asteburuetan lan egiteko ere prest. ☎ 631 124 942

- Neska eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanetarako.  
☎ 638 338 816
- Neska eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta portalak garbitzeko. Orduka eta gauzez ere lan egiteko prest. Gidabaimena daukat.  
☎ 631 343 232
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. 9 urteko esperientzia.  
☎ 676 444 813 (Maria)
- Emakume euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo zerbitzari lanak egiteko.  
☎ 639 054 041
- Neska eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko, esperientziarekin. Ordu-tegi malgua.  
☎ 630 410 294
- Neska eskaintzen da, pertsona nagusiak zaintzeko. 9 urteko esperientzia.  
☎ 606 007 742
- Neska eskaintzen da orduka edo interna nagusiak zaintzeko.  
☎ 606 641 609

### ESKAITZA

- Elgoibarko taberna baterako langileak behar dira: sukaldarako eta barrarako. Ezinbestekoa esperientzia izatea. Bidali CV argazkiarekin [tabernalan@gmail.com](mailto:tabernalan@gmail.com) helbidera.
- Asteburu eta jaiegunetan Elgoibarko denda batean lan egiteko neska behar da. 23-35 urte bitartekoa eta euskaraz ondo hitz egitea ezinbestekoa. [elgoibarcv@hotmail.com](mailto:elgoibarcv@hotmail.com)
- Zerbitzari euskalduna eta sukalde laguntzailea behar dira. Esperientzia. CV bidali [Gautxo.tabernara](mailto:Gautxo.tabernara).

## ETXEBIZITZAK

- Hiru logelako pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 616 649 503
- Hiru logelako pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 671 289 584
- Familia batek hiru logelako pisua hartuko luke alokairuan Elgoibarren.  
☎ 631 105 462 / 631 361 762 (Carlos eta Jenny)

## KINTOAK

- 1973koen kinto bazkaria ekainaren 13an, Txaridunan. 13:00tan luntxa eta 14:30ean bazkaria. 19:00etatik aurrera festa Gabazen. 40 euro sartu Kutxan: 2095 5036 50 9114823858.

## GARAJEAK

- Garaje itxia alokatzen dut Jausoron. Auto baten-tzako lekua. ☎ 699 812 566
- Garaje irekia saltzen da ikastolako aldan. 13m2. Merke. ☎ 666 40 28 30

## BESTELAKOAK

- Ohe artikulatua salgai. 1,05 neurrikoa, oso gutxi erabilia.  
☎ 656 738 884
- Goiko Errota elkarte gastronomikoak bazkideak behar ditu.  
☎ 679 938 070



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ 943 743 140 - [rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)



**Etxebizitza bat erosi genuen orain hilabete batzuk eta administratzaileari eman dizkiogun agi-rien artean Eraikinaren gaineko Liburua dago. Jakin nahiko nuke zertarako balio duen dokumentu horrek.**

Eraikin horren eraikitze prozesuan parte hartu duten agente guztiek emandako dokumentazioarekin etxe-sustatzaileak osatu behar duen liburuxka da Eraikinaren gaineko Liburua, eta honetarako balio du: etxe-jabeak jakin dezan eraikin horretako instalazio guztiek nola funtzionatzen duten eta eraikuntza horretan lanean jardun dutenak zeintzuk izan diren. Etxe sustatzaileak berak eman behar die liburu hori etxea erosi dutenei, eta liburuak honako dokumentu hauek jaso behar ditu:

1. Proiektua bera, eta ondoren egin eta onartu diren moldaketa guztien berri ematen duten agiriak.
2. Eraikinaren hartze-akta.
3. Eraikitze prozesuan parte hartu duten agenteen zerrenda: etxe-sustatzailea, obra-zuzendaria, obra hori gauzatu dutenen zuzendaria, eraikinaren kalitate-kontrolerako erakunde eta laborategiak, produktu-hornitzaileak...
4. Eraikinaren eta haren instalazioen mantenerako eta horniketarako behar den guztiaren gaineko agiriak.

**AHOLKUA: Eraikina egoera onean mantentzea etxe-jabe guztien eta erabiltzaile guztien betebeharra da. Obrako liburuan jasotzen diren argibideen arabera egin behar dute eraikinaren mantenua. Haien betebeharra da, era berean, eraikin horretan burututako obren gaineko dokumentazioa, aseguru eta bermeak behar bezala gordetzea.**

**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO:** Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749







• Zorionak mutil handi! 6 urte dagoeneko! Mila zorion, **Endika** denon partez, bereziki Markel eta Danelen partez



• Zorionak, **Nerea!** Gure sorgintxoak domekan 9 urte! Ondo pasa! Etxekoen eta Loliren partez.




• Zorionak, **Lander!** Gaur 3 urte txapeldun! Oso ondo pasa eguna.




• Zorionak, **Jone!** 6 urterekin zelako neska polita zauden eginda! Muxu handi bat denon partez.

Ekainaren 17an, guraso bilera 19:00etan. Egun horretan ludotekako zerbitzua 18:45ean bukatuko da



Arcachoneko ur parkera joateko izenemate epea domekan amaituko da. Animatu zaitzete!




• Zorionak, **Irantzu!** ekainaren 10ean 7 ure handi egin dituzulako. Asko maite zaitugun aitxixa, amama eta etxeko guztien partez, marrubizko muxu potolo bat.

## GAZTE-MULTIABENTURA

\*\*\*\*\*  
**Izen ematea zabalik**

TXANDA	DATAK	ADINAK	PREZIOAK
1 TXANDA	Uztailak 6-10	D.B.H. 1-2	50 €
2 TXANDA	Uztailak 13-17	L.H. 4-6-6	50 €
3 TXANDA	Abituzak 3-7	D.B.H. 1-2	50 €
4 TXANDA	Abituzak 24-29	L.H. 4-6-6	50 €

L.H. 4, 5, 6  
D.B.H. 1-2

**Uda 2015 lekuak**

**ARRATSALDE PASAK**

**Anima zaitzez!!**

**50€**

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
 <b>Mutrikuko Igerilekuak</b>	 <b>Espeleo</b>	 <b>Uztai-jaurtiketa</b> <b>gynkana</b>	 <b>BTT + IGERILEKUAK</b>	 <b>Eskalada</b>

**Deban**

Hartzaileak: Eibar, Elgoibar, Mendani, Mutriku eta Debea 9-14 urte bitarteko gazteak

Orduak: 16:30-19:30

Tel. 943 19 11 72 / 695 783 656  
debanatura@hotmail.com www.debanatura.net

# LAN-DEIALDIA

Elgoibarko Gaztelekuko hezitzaile lanposturako deialdia

**ESKAITZEN DA:**

- Egun erdiko lanaldia.
- Urtebeterako lan kontratua.

**ESKATZEN DA:**

- Gizarte Hezkuntzako, Gizarte Laneko, Gizarte Zientzietako edo antzeko erdi edo goi-mailako titulazioa izatea.
- 3. hizkuntza eskakizuna, EGA edo titulu baliokideren bat.

**BALORATUKO DA:**

- Aisialdian lan eskarmentua izatea.
- Jarrera dinamiko eta sortzailea izatea.
- Nerabearoa eta nerabeen errealitatea ezagutzea.
- Planifikatzeko, ebaluatzeko eta antolatze gaitasuna izatea.
- Elgoibarkoa izatea.



**CURRICULUMAK BIDALTZEKO EPEA:**  
ekainak 22, astelehena

atxutxiamaiika@elgoibarkoizarra.eus  
Ubitarte 4, behea. 20870 Elgoibar

## 12 barixakua

### *Erakusketa*

18:30 'Collage materikoa'

Ignacio Gimenezen lana jarriko dute ikusgai Kultur Etxean, hilaren 20ra arte.

### *Musika*

19:00 Kontzertua

Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako talde finkoen kontzertua. Herriko Antzokian

## 14 domeka

### *Musika*

10:00 Musika Bandaren kalejira

Kalegoen plazatik.

12:30 Musika Bandaren kontzertua

Herriko Antzokian.

Zuzendaria: Gorka Mujika.

1. Carmen Suite (G. Bizet)

2. Irish tune (P.A. Grainger)

3. Manolete (P. Orozco)

4. Libertadores (Oscar Navarro)

### *Bilera*

19:00 Gazteen Eguna antolatzeko

Gazte Asanbladak deituta, Elgoibarko Gaztetxean.

## 16 martitzena

### *Musika*

19:00 Musika Eskolako jaialdia

Mendaroko San Agustin antzokian

## 17 eguaztena

### *Musika*

19:00 Kontzertuak

Ameikutz musika eskolako bakarleri eta bikoteen emanaldiak Mendaroko San Agustin antzokian

## 18 eguena

### *Musika*

19:00 Kontzertuak

Ameikutz musika eskolako bakarleri eta bikoteen emanaldiak Mendaroko San Agustin antzokian

## **BOTIKA ORDUTEGIAK:**

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

## **GUARDIAK**

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
12 Garitaonandia 13 Yudego 14 Yudego 15 Fernandez 16 Yudego 17 Oruesagasti 18 Barrenetxea 19 Ibañez	Astelehenetik igandera  Garitaonandia	Elorza (Eibar) Juan gisasola, 18 (943 206 100)

\* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

**Fernandez** Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

**Ibañez** Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

**Oruesagasti** Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

**Ekainaren 19an zatoz gure dendetara!  
Elgoibarren bizi-erosi herriak irabazi**



Gabeslea:

EUSKO JAVURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ERAZOAREN GAIKOR  
ETA ZEHARRIKOEN SAILA

DEPARTAMENTUEN BILDEKORRAGIA  
EKOIZPENEN ETORRIEN ETORRIEN



Mila jaku, guzti-guztiori



elgoibarko herri eskola



Euskaraz  
blai

Empapate  
de  
Euskera

UDAKO IKASTAROAK

Hortik besterik gabe  
ZABAIK

Plaza de  
contribuciones  
AJUNTADO



UDAL  
EUSKALTEGIAK

ALDURDIA ELGOIBAR • OFIZIA DE PLAZA

## UDA IKASTAROA

IRAUPENA: 80 ORDU

EKAINAREN 29tik UZTAILAREN 24ra  
(3 ordu egunean)

IRAILAREN 7tik 18ra  
(2 ordu egunean)

PREZIOA: 123 €

Ikasle eta langabetuentzako prezioa: 77€

Bekatzte-sistema

MATRIKULALDIA: Ekainaren 25era arte

DEBABE UDAL EUSKALTEGIA

Kalebarren plaza, 2  
20870 ELGOIBAR

Telefonoa: 943742731

e-posta: [udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus](mailto:udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus)



administradores

Consejo Vasco de Colegios  
de Administradores de Fincas  
Euzkoaldea Finkak Administraziozaleen  
Lurralde Kontseilua

**NORFO** S.L

ASESORAMIENTO DE EMPRESAS



## 24 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIA PROFESIONALA

ERATZEA

FUSIOA

SOZIJETATEEN ERATZEA

ERREGISTROETAKO TRAMITEAK (MERKATARITZA-JABETZA)

AHOLKULARITZA:

LAN-AHOLKULARITZA

AHOLKULARITZA-FISKALA

KONTABILITATE-AHOLKULARITZA

ENPLEGU-ERREGULAZIO ESPEDIENTEAK  
PENSIOAK: ERRETIROA-BALIAEZINTASUNA  
ALARGUNTZA-UMEZURTZ GELDITZEA

DIRU-LAGUNTZAK

ENPRESAK

LANGILEAK

AITORTZAK:

ZERGA

HONDASUNAK

SOZIJETATEAK

OINORDETZAK

KUDEAKETAK:

FORU OGASUN ETA OGASUN ESTATALA

GIZARTE SEGURANTZA

FORU ALDUNDIAK

## ROSA M<sup>a</sup> PINTADO

Etxaldean Administraziozalea - 749 kolegiatu zenbakiduna

HOGEI URTE BAINO GEHIAGOKO

ESPERIENTZIA PROFESIONALA

ETXALDEEN ADMINISTRAZIO-GRADUAN ALCALA DE  
HENARESEKO UNIBERTSITATEAK EAE-N, KANTABRIAN ETA  
ERRIOXAN DAUKAN ARDURADUNA 1998TIK HONA

INDUSTRIKUNEN KUDEAKETA

KONPENSASIZIO BATZORDEAK

PORTALEKO KONTUEN KUDEAKETA

AURREKONTUEN AZTERKETA

OBREN KUDEAKETA ETA GAINBEGIRATZEA

HORNITZE KONTRATUEN EGIAZTATZEA

KONTRATU-EGITEAK

ORDAINKETA, KOBRAZTEEN ETA ZORDUNEN ZAINKETA

**LANERAKO GERTU URTEKO 365 EGUNETAN.  
KUDEAKETA SERIOA, ZINTZOA ETA PERTSONALA.  
ESKUBIDEEN ETA BETEBEHARREN GAINEKO INFORMAZIOA.  
AKORDIOEN INGURUKO LEGE-AHOLKULARITZA.  
BITARTEKARITZA LANAK.  
BEHAR BESTE EZOHIKO BILERA.**